

# KAYETANO SANCHEZ IRURE

EUSKALDUN ZINTZOARI OROIPENA

¡JAUNGOIKUAK BEREGAN DEZALA!

**I**LL onen 24<sup>-an</sup> il da gure lagun atsegin ta maitekorra Kayetano Sanchez Irure jauna.

Euskeraren alde zale bizi ta sutsua izan zan beti. Al zitubenak, eta ezin zitubenak ere, gure izkuntza maitagarria'rentzat opa izan zitun bizi guziyan. Geyago lezaketenak ugariñago izan litezke, baña gogo geyago izan dutenak biatzakin konta ala izango dira nozki.

Azkenetako bere lana antzokirako izan da. Donosti'ko euskal iztundeak ikasiya dauka *Azken beltza* izendatzen dan abalizketa. Gizarajua zoratzen zegon bere egipena antzokiyan ikusteko. Makiñabat aldiz esan digu. Ala ez biar. Ludi ontatik alde egin du, abalizketa aurkestatu baño len.

¡Jaungoikuak beregan dezala!

TORIBIO ALZAGA



¡GIZAGAJUA!

Sega zorrotzak ebaki dizu  
bizi maitiaren ertza,  
eriotza da begiz illuntzen  
gaituen ukezko eza;  
nere biyotza Jaun Zerukuak  
kemenez ugari beza,  
garbi dezatan lagatz kakotik  
chinchilik daguen pertza,  
kedar zikiñak ezta ez dezan  
zuria dan, *Azken beltza*.

Buruz aztundu zeran garayan  
 zaizu biyotza arindu,  
 Zeru ta lurren jabe bakarrak  
 au dubelako agindu;  
 zure emazte maitechoak gaur  
 zu gabe etzi ezin du,  
 biyotzetikan mami guztiyak  
 zayozka oso sumindu,  
*Azken beltza'* ren azkurre minkor  
 charrak dubelako mindu.

. . . . .  
 ¡Orra Kaitano Sanchez Irure  
 eriotz chandak išildu!

JUAN IGNACIO URANGA



## OTOI EGIN ZAGUN

Egiyetako Donostiarra  
 jostallu eta trebia,  
 koška zalia, benetakua,  
 jatorra pare gabia;  
 kontu kontatzen yayua eta  
 izkribalari obia,  
 euskara zale leyal zintzua  
 egintzetan chit noblia,  
 ¡Jaun zerukoak zure anima  
 izan dezala gordia!

Chit penatua arkitutzen zait  
 oso auldurik biyotza,  
 jakiñik nere lagun maitiak  
 izan dubela eriyotza;  
 neretzako zan gosagarriya  
 zure abo itz bakoitza,  
 ¡ill zera, bañan nere barruan  
 gorde da zure oroitza!

. . . . .  
 ¡Bene benetan Jaunari pozez  
 egingo diyot otoitza!

JOSÉ ARTOLA